



JON MIRANDE
(1925-1972)

Egilea:

LURDES OTAEGI

ZUBEROTAR BAT PARISEN

Jon Mirande Aipharshoro idazlea Parisen jaio zen, 1925eko azaroaren 10ean. Gurasoak zuberotarrak zituen (Jean Garindaineko *Xaho* baserrikoa eta Marie Sohütakoa), biak ere Parisera lan bila joanak. Aita hotel bateko atezaina izan zen, eta ama etxe zerbitzaria. Boulevard Davouteko 30 metro karratu baino gehiago ez zen apartamentutxo batean bizi izan zen 1967 arte bere familiarekin: gurasoak eta bera baino bi urte zaharrago zen arreba Marie.

Batxilergo ikasketak Place de la Nationeko Lycée Arangon lizeoan egin zituen, eta 1944an Finantza Ministerioan lortu zuen lanpostua hemeretzi urte zituela eta II. Mundu Gerra artean amaitu gabe zelarik. Laster bilakatu zen funtzionario, baina ez zuen karrerarik egin nahi izan administrazioan, ez oposaketarik ere postu hobeak iristearren, beti izan zuen oinarrizko lehen lanpostu arrunt hura. Haren zenbait poemak, bereziki «Paris-Beuret» izenekoak, ederki azaltzen du bulegari lanpostu hari zion atxikimendu eskasa eta lankideen

artean zuen giro hotza. Izan ere, arrotza zen bera bulego-giro hartan, poeta baitzen, nazia eta euskaltzalea gisa berean.



Jon Mirande (1958). Euskarazko idazlan gehienak 1950-60 hamarkadan sortu zituen.

II. Mundu Gerraren zurrunbiloan, eta artean oso gazte zelarik, nazi bretoiak ezagutu zituen eta haiekiko harremanek eraman zuten beragan oso eraginkorrak bilakatuko ziren nazional-sozialismoaren ideiak hartzera.



Jon Mirande 1944an Zuberoan izebarenean eginiko egonaldian.



Jon gaztea zela, Paris alemaniarren menpe egon zen 1940-1944 artean.

Giro horretan, bere euskal nortasunaz ohartu zen eta hizkuntza zeltikoekiko interesa piztu zitzaion. Geroxeago, Europako aintzinako hizkuntza guztiak ikasteko asmoa hartu omen zuen, baita horietako batzuk ederki menderatu ere, Luis Mitxelenak aitortzen zuenez. Kultura zabal hori eta hizkuntzak ikasteko zaletasuna eta erraztasun harrigarria bere nortasunaren ezaugarri nagusi bilakatu ziren; nolabait lanbide aldetik ez zuen anbizioaren beste aurpegia

izan zuen hori, zaletasun kultural zabaletan erabili zuen bere dohain eta gaitasun paregabea.

Aurreraxeago, 1945-46 aldera euskara ikasteari ekin zion seriotasunez eta, bere eraginez, etxekoen artean zuberera berreskuratu zuten harreman hizkuntza gisa. 1948an eman zuen bere lehen idazlana ezagutzera *Gernika* aldizkarian. Eta harrezkero idazlanak euskaraz argitaratu zituen batik bat, eta bere hizkuntza eta estiloa zorrozten jarraitu zuen etengabe. Beste zenbait lan, berriz, bretoieraz, kornuaileraz eta frantsesez idazten eta argitaratzen zituen.

Fisikoki deskribatzerakoan, Txomin Peillenek altura gutxikoa zela eta sudur-zabal samarra zuela esaten du, baina begi ederrak zituela. Federiko Krutwigek berriz, «Varsoviako ghettoke judu nano bat zirudiela» esanez deskribatu zuen, bide batez, laguna zuen Miranderi bere antisemitismoaren kontura adarra jotzen ziolarik. Halere, erakargarria gertatzen omen zen bere nortasuna, xarmangarria omen zuen portaera, hitz-jario atsegingarria eta dibertitua...

POETA ETA EUSKALTZALE

Hain gogaikarri zitzaion bulegoko lana eta giroa alde batera uzten bada, idazle eta poeta batena omen zuen bizimodua. 1947an ezagutu zuen Goulvaen Pennaod lagun bretoiarekin poesia klubetara joaten omen zen, bai eta «Druiden Eliza Pagano» delakora ere. Ofiziante druidetako bat bilakatu omen zen, erlijio zeltaren misterioak ikertuz. Kultura eta hizkuntza zeltikoetan oso aditua zen eta besteak

3



Jon Mirande erlijio zeltaren ofiziantea zen. Hona, druidaz jantzirik.

beste, Bretoieraren Akademiako izendatu zuten.

Gainerakoan, Txomin Peillenek dioenez, «enfant terrible» gisa jokatzeko omen zuten bi lagunek Parisen katalanek, euskaldunek edo bretoiek ospatzen zituzten ekintza kultural edo politikoetan, euren ideia paganozale, nazi, antijudio, antikristauen eta askatasun sexualaren aldarrikapena eginez. 1948 eta 1952 bitartean idatzi zituen olerki, ipuin eta artikuluetan gehienetan gai horiexek erabiltzen zituen, abertzale zintzoen eskandalagarri.

Bidaiatzea oso gustukoa zuen, lagunaren lekukotzari esker eta hauei bidalitako gutun eta postalen bidez dakigunaren arabera, Britainia, Ingalaterra, Irlanda, Espainia, Holanda, Alemania eta Danimarkan barrena ibili zen, eta hizkuntza nahiz kulturei buruzko jakin-minari atsegin emateko parada izaten zuen horrela.

1947 eta 1962 bitartean koka daitezke Miranderen jardun euskaltzale, idazle kolaborazio eta literatur lan gehienak. 1948an Piarres Lafittek gonbidatuta etorri zen Miarritzeko Euskal Biltzarrera, baina



Jon Mirande bere lagun bretoiekin «Prix de Rassemblement Breton» ospakuntzan (1969).

gerora bien arteko harremanak hoztu egin ziren Miranderen joera ideologikoak nabarmendu ahala, izan ere, Lafitte, apaiza izateaz gain, faxista alemanen aurkako erresistentzian ibilia zen, Espainiako faxistek eragindako gerratik ihesi joandako haurren arduradun izana zen... Ez ziren inolaz ere gogaide izatekoak.

Hala ere, oso pentsamolde ezberdineko adiskideak zituen Mirandek euskaltzaleen artean eta haiekiko harremanak gutunen bidez izaten ziren gehienetan. Parisen ikusten zituen A. Ibiñagabeitia, F. Krutwig, eta Tx. eta R. Peillen anaiez gain,

J. Zaitegi, L. Mitxelena, G. Aresti eta J. Etxaide ere hurbilekoak izan zituen. Esate baterako, azken honekiko harreman pertsonala sakona izan zen eta hogeitun urte inguru luzatu zen. Besteak beste, laguntza handia eskaini zion Etxahunen bertsoen edizio gipuzkeratua prestatzerakoan.

1956ko Arantzazuko Euskaltzaindiaren Biltzarrean parte hartu zuen Koldo Mitxelenak deituta. Euskara batua sortzerakoan mahairatu ziren joera ezberdinen artean Mirandek oinarritzat lapurtera klasikoa hartzearen aldeko jarrera hartu zuen, Luis Villasantek eginiko proposamena




Jon Mirande 1956an Arantzazun eginiko bileran. Irudian Jean Diharce *Iratzeder* eta Koldo Mitxelenaren ondoan agertzen da.

6

apoiatuz. Erabiltzen zuen gipuzkera osotua, baina aukera hobea iruditzen zitzaion tradizio literarioa zuen lapurteran oinarritzea kultur hizkuntza eraikitzeko.

Garaiko euskal aldizkarietan eman zituen ezagutzera bere artikulu eta poemak, hasieran *Herria* eta *Gernikan*, gerora berriz, *Euzko Gogoia*, *Irrintzi eta Egan*-en. 1962-63 bitartean aldizkari horietan argitaratzeko zailtasunak areagotu zitzaizkionean, Txomin Peillenekin batera *Igela* aldizkaria atera zuen, «euskaldun heterodoxoen errebista» izendatu zuena.

Lagunek hartara berotu zutenez, *Ilhun-argiak* izeneko poema liburua osatzeko asmoa ere hartu zuen 1950 urte inguruan. Lehengo poemak hobetzen eta berriak sortzen ahaleginak egin zituen, Miangolarrak argitaratuko zizkiola agindu zionez. Baina, urteetan ez argitaratzeko arrazoiak zeintzuk ziren jakin gaberik, etsi-etsi egin zuen azkenean eta Ibiñagabeitiari haiek argitaratzea eragozteko eskatu zion 1956an. Antzera gertatu zitzaion 1959rako amaitua zuen *Haur besoetakoa* nobelarekin ere, ez zuen aurkitu argitaratuko zionik, harik eta 1970ean Gabriel Arestik Lur argitaletxean bere ardurapean atera zuen arte.



ARGI BAINO ILUN GEHIAGO

Bere ideologia eta jokamolde heterodoxoa zela eta, garaiko euskal giroan idazlanak argitaratzeko aurkitzen zituen zailtasunak areagotu ahala, Miranderen biografia pertsonalean ere zenbait arazo azaleratuz joan ziren. Urteetan zekarren alkoholzaletasun arazoari 1958an bere amaren heriotzak erakarri zion depresio anikilantea gaineratu zitzaion. Gaixorik zegoen, zehaztasunez esateko, psikiatrek «psikostenia» deitura eman zioten bere gaitzari. Aurrerantzean 1958ko erorialdia bezalakoak gero eta sarriago gertatu zitzaizkion.

Urteek aurrera egin ahala, gero eta nabarmenago ikusten zuen bere jardun euskaltzalea absurdua zela, liburuak eta artikuluak argitaratzeko zailtasunak zituen eta harrera eztabaidatsua izaten zuten. 1962an Txomin Peillenekin batera atera zuen Igela aldizkariak ere iraupen laburra izan zuen. Deseroso zebilen garaiko mundu euskaltzalean. Haere, 1962an zenbait lagunek, L. Mitxelena, L. Villasante, A. Arrue, A. Irigarai eta F. Krutwig-ek, Euskaltzaindian euskaltzain oso izendatzeko hautagaitzat proposatu zuten. Berak ordea, urte bereko abenduan eginiko

7

Heste ingeleseko liburu bat seinatu nahi ditut, interes zer bait baituke zuretzako mintzai-jakintzaren aldetik (bainan menturaz jadanik ezagutzen duzu?). Aizena du: The Problem of the Picts, edited by P.T. WAINWRIGHT, London, Thomas Nelson 1955, 188 p. in 88, 21 sh. Piktuen problema historia, arkeologia, antze ta hizkuntzaren aldetik istudiatzen du (Kenneth Jackson-ek du hizkuntza aipatzen) eta jendaki hori (torris ez baitzen noski indi-europarra hizkuntzari ta gizarte-legeari dagokienaz (nahiz keltizatusa izan, parteka), uste dut "uskaldun batentzat haren berriak jakingarri direla. Nihauk ez dut liburu hori irakurri, Bachellery-ren irunkin b. batzirik ETUDES CELTIQUES delakoan.

Esker mila Euskaltzaindian ene onhar erasteko emaiten dituzten urrhatzen gatik. Bainan uste dut mugaz buraindiko euskaltzain gehientsuak ez direla ene kandidaturaren alde izanen - eta mugaz haraindiko zenbait ere ez, non ere baita! Eta behar bada arrazoi dute: kristau gairto, amoral eta, last but not least, antisemita tzar bat batzirik ez bainan...

1962an L. Mitxelenari eginiko gutunaren zatia, eskerrak emanez.

Jon Mirande Chateaulin-en (Bretainia).
Pennaod-ek eta bere familiak eginiko bisita
batean harturiko azken argazki ezaguna.
(1972ko abuztuan)



Handik pixka batera, La Pitié-ko erietxean lo tratamendu guztiz gogorra egin behar izan zioten. Ondorio fisiko eta mental itzuri ezinak geratu omen zitzaizkion erialdi hartatik, hogeitaz zaharkitua zela esan omen zitekeen. Izan ere, alkoholaz batera, pilula loeragileak behar zituen Mirandek depresio egoeretatik ihes egiteko. Botika mota horietara ohitua bizi zen eta gero eta indartsuagoak behar zituen. 1972an berriro ere tratamendu bereziak behar izan zituen Chateaulingo sendategian eta bestelako kliniketan...

1973ko urtarrilaren lehen egunetan bisitan joandako lagun batzuek aurkitu omen zuten hilik bere apartamenduan, bi botila whisky eta lau tubo barbituriko hutsen ondoan. Medikuek abenduaren 28an datatu zuten haren heriotza. Jon Etxaide bezalako lagunek nahi gabe edo uste baino alkohol eta pilula gehiago hartuta hil izango zela pentsatu bazuten ere, oso uste hedatua da ezagutu zutenen artean heriotza bilatu egin zuela nolabait. 47 urte besterik ez zituen, eta 15 urte inguru zeramatzan gaixorik.

10

Jon Miranderen nortasun eta biografiaz batera, ideologiaren berezitasunak jorratzea garrantzitsua da haren obra hobeki aditu ahal izateko. Izan ere, Miranderen obra esteta perfekzionista batena dela esan behar den hein berean aitortu behar baita bere pentsamenduaren islapen etengabea dela, eta bereziki euskaldunentzat idazten zuela. Hain zuzen ere, garaiko irakurle euskaldunek bere mezuari egiten zioten harrera entzungorrak eta are arbuioak bultzatu zuten azken hamar urteetan euskaraz gehiago ez idaztera.

Bi lerro nagusi nabarmendu dituzte adituek haren ideologian: alde batetik, erromantizismotik zetorkion mundu-ikuskerara, eta bestetik mende hasierako Europako pentsamenduan eragin handia izaniko Nietzsche eta Spengler-engandik jaso zuena.

Erromantizismoaren izpirituak, *Sturm und drang*, errebelamendu jarrera itsatsi zuen Mirandegan. Indibiduo burgesari erabat kontrajartzen zitzaion izpiritu aristokratiko erromantikoa bereganatua zuen, eta gizonaren inozentzia aldarrikatzen zuen ozenki, hezkuntzaren eta zibilizazio



1970eko «Prix de Resemblant Breton»-en ospakuntzan. Eskuinaldean, Jon Mirande. Ondoan, Jean Marie Le Penn eta Goulvaen Pennaod, Jonen lagun mina.

mendebaldarraren eraginak gizakiaren berezko izaera erabat gaizkoatzen zuela salatuz.

Mirandek ere, erromantikoek bezala, iraganaren herrimina sentitzen zuen, noizbait munduak izaniko batasun galdu haren lilura eta nostalgia, hartara itzultzeko irrika bizia. Hortik bada, aintzinako kultura zeltiko eta euskaldunarekiko zaletasuna.

Oso gaztetatik ezagutu zituen Nietzsche nahiz Spengler-en obrak eta Miranderen pentsamendua horien filosofiaz blaiturik dagoela diote adituek. Neurri handi batean, gainera, nazional-sozialista alemaniarren ideologian hartu zuten irakurketaren bide beretik bereganatu ere.

Pentsamendu horren zenbait alderdi azaldu nahi izanez gero, kristautasunarekiko jarrerak duen garrantzi berezia azpimarratu beharra dago. Bi filosofo horientzat kristautasuna fede ahulgarria da, gizakiaren berezko izatea ito egiten duena, bakezaletasuna eta moral transzendentearen zama ezarriz. Jainkoaren heriotza eta «gizagaindikoa»ren nagusitasuna aldarrikatzen du Friedrich Nietzsche-k, esate baterako.

Oswald Spengler-ek berriz, berebiziko eragina izan zuen

Miranderen jarreran, kritiko guztiek aipatzen dutenez. 1918ko bere *Mendebaldearen gainbehera* idazlanean, Mendebaldeko kulturaren hondamendiaren erradiografia determinista egin zuen, eta gainbehera horren froga omen ziren Europa aldean nagusi ziren ideologia ahulgarriak: kristautasuna, marxismoa, demokrazia, parlamentarismoa... Guztiek gizakiarengan datzan kemenaren eta indarraren balore nagusia zanpatzen zuten.

Mirandek Spengler-en ikuspuntuak hartu zituela esan genezake, ez zen demokrata, kristautasuna arbuiatzen zuen eta marxismoa ere bai. Bigarren Mundu Gerran, 15-20 urte zituelarik, Pariseko bretoi naziekin eta hauen Spengler-zaletasunarekin harremanetan jarri zen: honela jabetu zen europarra zela eta euskalduna. Orduz geroztikoa da Mirandek euskara eta euskal kultura ezagutzeko eginiko ahalegin handia, bai eta Europako aintzinako kultur hizkuntza guztiak menderatzeko saio erraldoiaren arrazoia ere.

Lerro nagusietan azaldutako ikuspuntu ideologiko honek beti urrundu zuen Jon Mirande garaiko euskal giro abertzaletik: Mirandek gaitzetsi egiten zuen garaikide zuen euskal abertzaletasun zintzo, demokraziaazale, fededun eta bakezale

12

hura, eta euskal nazioaren aldarrikapenak bestelako identifikazioak zituen beragan. Izan ere, gure nazioaren iraupen aukera bakarria indarrak baliatzean zetzalakoan zegoen; bere ustez, demokraziak ahuldu egiten zuen euskaldunek zuten irauteko aukera eskasa. Bestalde, arrazista zela aldarrikatzeak eta juduen aurka idatziriko zenbait artikuluk gerratea galdu zuten naziekiko identifikazio osoan kokatu zuten, eta ondorioz, zenbait polemikaren ardatz bilakatu.

Mendebaldeko zibilizazioa gainbeheran omen zegoen, beraz, eta errealitatean nagusitzen ikusten zuen joerak zapuztu egiten zuen, horregatik, Mirandek utopietara jo zuen: euskal paganismoaren aldarrikapena egiten zuen, eta ahulgarrari diren demokrazia-zaletasun eta bakezaletasun kristauak baztertzen zituen. Bere artikuluetan Antzinate urrunean euskaldunak hain zintzo eta jator ez zirela izan gogorarazten zuen, gure arbasoek euren iparraldeko eta hegoaldeko auzokoak ikaratzen eta mendean hartzen omen zituztela, ahal zuten bezainbat. Historiatik ateratako datuetan oinarrituz, euskal gizartean bazterturiko ijito, judu eta agoteak ere izan bazirela oroitarazten zuen, eta euskaldun asko gaizkile gisako mertzenario egiten zirela garai batean.

Beraz, aurkeztu ohi diguten euskal eredu osasuntsu, formala eta langilea geure endekapenaren emaitza ustela besterik ez zen, bere ustez. Euskal izaera faltsuaren mitoak alde batera utzirik, berriro Antzina izan ginena, *vascones inquieti* bihurtu behar genuela zioen, iraun ahal izateko eta geure senera itzultzeko.



Antzinateko euskal sinesmenen omenez idatziriko «Euskaldun laminei» (1961) poema.

Euskaltzale heterodoxo honen literatur obra lau literatur genero ezberdinetan mamitu zen, berez denera hartuta obra laburra bada ere: olerkiak eta ipuinak dira aurrenekoak, eta artikuluak eta nobela, berriz, bizitzaren azken aldera gehien landu zituenak. Miranderen obra XX. mendeko idazle fin eta estetarik zainduenetako baten emaitza da eta haren eragina poeten artean aurkitzen da batez ere, besteak beste, Felipe Juaristi eta Joseba Sarrionandiaren idazlanetan, azken honen poesia eta narraziogintza badira ere zuberotarraren oinordeko aitortuenak.

POESIA: ESTETA BATEN HITZ ZIZTATZAILEA

Gerraosteko euskal poesiak ekarri zuen berrikuntzan, elkarren artean guztiz ezberdinak ziren bi korrante edo bi polo nagusi nabaritzen dira, bata Gabriel Arestirena, poesia soziala egiten duena, eta bestea, Jon Mirande, estetizismoaren bidetik jo zuena.

13

Jonek gelan omen
zuen apaingarri
bakarra: Albert
Dürer-en
«Melencolia»
grabatua.
«Andere bat da,
zeinen begien
bitartez Saturno
munduari beha
eta adi dagoen».



Jon Miranderen obra poetikoa laburra da, batez ere 1948-55 urteen inguruan garatu zen intentsitate gehienaz, eta aldizkarietan barrena sakabanaturik egon da urteetan zehar, 1956an *Ilhun-Argiak* titulupean argitaratzeko asmoa behin-betiko utzi behar izan baitzuen. Halaxe egon ziren bere poemak 1976an Andolin Eguskitzak *Orhoituz* liburuan poema sorta argitaratzea lortu zuen arte. Jon Mirandek oihartzunik gehiena poesian izan du, aparteko berritasuna ekarri baitio euskal poesiagintzari. Berritasun horren ezaugarri nagusiak zertzelatzerakoan, batez ere bi ardatzen ingurukoa dela esan liteke: tematikoa eta formala.

Tematikari dagokionez, Miranderen olerkigintzan dagoeneko aipatuak ditugun joera eta zaletasun ideologikoek eragin handia izan zuten. Haren espresabide dira neurri handi batean eta, horrexegatik, berritzaile eta muga haustaile bihurtzen dira euskal literaturaren gerraondoko giroan.

Miranderen heterodoxia da olerkien tematikaren alorrean sumatzen den ezaugarri nabarmenena. Xabier Letek *Orhoituz* liburuaren argitalpena zela eta eginiko iruzkinean ohi bezain zorrozki deskribatu zuen Miranderen antikonbentzionaltasun hori:


«Mirandegan haur ttiki bat zegoen, paganotasun ametsez beteriko haur ttiki zorionzale eta erotikoa; baina, era berean, Nazismo ondorengo ankerkeria eta lohikeria guztiek zikindutako hogeigarren mendeko mendebaldetar ilun bihurria ere bazegoen. Itxaropenik gabeko herri ttiki baten seme ttiki bat, handitasun ametsez beterik beti bizitu zena, ezintasunetik sortzen diren neurosietan murgildua. Batetik buru argi, zorrotz, bestetik erromantiko izpirituzale. Batetik bere herriaren madarikatzaile, konformismo eta estukeriez higuindurik, bestetik, Aberria aska zezaketen gudu enda berri bateko zaldunak eraikizale eta kantatzaile.» (Zeruko Argian, 1976, 23 zk., 30 or.)

Miranderen antikonbentzionaltasun hori bere poemetan nabarmentzen da bortitzenik X. Leteren ustez, «gehiegitxo beharbada, bai baitirudi zenbait aldiz zenbait gairi buruz bere egiazko joera eta kezken bidetik baino, bazterrak inarrosteko desiotik abiatzen dela.» Letek nabarmentzen duen «gehiegikeria» hori ohar aipagarria da: Mirandek euskal






Ilhun Argiak Miranderen poema antologia (EHU, 1992). Izenburu horixe zen Jon Mirandek bere poesia liburuari eman nahi izan ziona.



15



1955ean idatziriko «Paranoia» poemaren originala.

Miranderen poesiak garaiko aldzkarietan argitaratu ziren. Honako hauek A. Eguzkitzak (1976), Tx. Larreak (1984) eta X. Olarrak (1984) prestatuturiko antologiak dira.



16

gizartearen araztasuna astindu nahi zuen erotik, euskal izatearen muin bakezale demokratiko, kristau eta zintzoa erasotzerakoan erakusten duen biolentzia, beharbada, bere benetako joerak baino gehiago, gauzak pitin bat bada ere aldatzeko saioak ez ote ziren iragartzen zигun.

Miranderen poesien tematika lau ardatzen inguruan biltzen da: erotika, heriotza, paganismoa eta abertzaletasuna. Sentsualismo

erotikoa litzateke gai nagusia, eta Baudelaire, Mallarmé, Verlaine eta Rimbaud poeta sinbolista frantsesen eragina oso garrantzitsutzat jotzen da alor honetan. Sentsualismo erotikoak euskal literaturan ezohiko bideak hartzen ditu Miranderen obran: lesbianismoa, pederastia, prostituzioa, homosexualitatea eta masturbazioa dira erabiltzen dituen gaietako batzuk. Heriotzaren gaia, aldiz, sarritan, bakardade, umore beltza eta biolentziarekin erlazionaturik agertzen



«Txoriontasun» poema honetan Mirandek nolabait Lizardiren «Gure mintzo» poemaren parodia egiten du, ohiko euskalduntasunaren ikuspuntu ironikoa hartuz.

da, eta ideologiaren alorrean nihilismoaren joerarekin erlazionaturik dago. Paganismoaren eta abertzaletasunaren gaiak ere agertzen dira bere ideologia antikristauaren, paganozalearen eta abertzale erradikalaren adierazpen gisa. Euskal paganismoa eta garai heroikoen berpizkundea iragartzen duten poemetan, Europan jadanik zaharra zen erromantizismoaren tradizioari lotu zitzaion, Iñaki Aldekoaren ustez.

Miranderen poesiaren bilakaera tematikoa zedarrirituz, esan dezakegu hasieran Mirandek poesia heinearra egiten zuela, non maitasuna, batez ere maitasun eternala den poesi gai nagusia: esate baterako, bestearen hitzak sinestu eta engainatuak izango diren maitale inozoak, edota, heriotzak den-dena astintzen duela eta ilusio guztiekin amaitzen duela aditzera ematen dutenak. Bigarrenik, errebelamendu sozialaren aroa

17



Mirandek *Euzko Gogo*a aldizkarian argitaratu zituen bere lan asko. Aldizkariaren arduradunak ziren A. Ibiñagabeitia, J. Zaitegi eta Orixe Guatemalan. «Euskal Hirutasun Santua» azpioharra jarri zion A. Ibiñagabeitiak argazki honi.

18

helduko da, Mirandek euskaldunen joera zintzo, ahul eta kristauak kritikatuko ditu eta paganismoaren eta biolentziaren gorapena egingo. Hirugarren epe batean, aldiz, existentziala bilakatuko da Miranderen protesta heriotzaren aurrean, mundua «iduritze» hutsa besterik ez da: *Nil igitur mors est* (Beraz, heriotza ez da deus).

Jon Miranderen poemen berritasun formala ere nabarmena da, esan dugunez. Xabier Letek etengabeko esteta eta perfekziozalea izan zen Jon Miranderen ahalegin estetizista Lizardirenaren parean jartzen du, eta konparazioak are zuzenagoa dirudi, alderdi tematikotik hain urrun dauden bi poeta hauek egin zuten obra laburraren edertasun ezberdinaren perfekzio nahiari erreparatzen bazaio, biek ere premien arabera, espresibitatea bilatuz eta bilatuz aritu baitziren, azkenera arte.

Bestalde, olerkien gaiak eta mintzaira bere-bereak baditu ere, Mirandek guda aurreko idazleak hartu zituen abiapuntutzat eta haien lorpen poetiko zenbait bereganatu zituen. Besteak beste, Pizkunde Aroko Lizardi eta Orixe olerkarien ume zen nolabait. Haiengandik ikasia zuen euskal literatura kultua, Jokin Zaitegiri 1956an eginiko gutunean aitortzen duenez,

«neuk ere, aien ikasle bezala ezagutzen dut neure burua». Nabari zaio literatur mintzairaren trinkotasunean, aditz, atzizki eta pasarte osoen elipsirako joeran, metrika zainduaren erabileran, errima arrunten arbuioan, poemaren hotsen eta ideien barne-erritmoen bilaketa etengabea... Baina, bestalde, berak aitortua zuen moduan, ingelesez idatzi zuten zenbait poeta zituen eredu, itzuli zituen Poe eta Yeats bereziki. Bestalde, idazle erromantiko nahiz kantatu alemaniarrek ere oso gogoko zituen eta zubererazko ahozko lirika tradizionala oso ongi ezagutzen zuen. Horra hor laburki Miranderen iturriak.



Igela, aldizkariaren bilduma (Hordago, 1979). Jon Mirande eta Txomin Peillenek argitaratu zuten Parisen 1962 eta 1963 bitartean.

Jon Mirandek poesiaren gaiek euskal gizartea «epatatu», inarrosi egin nahi bazuten ere, olerkiak egiterakoan, guztizko edertasun literarioa bilatzen zuen, joko eder bat soilik egitea beste gabe. Bere poesiaren estilo surrealista eta sinbolistaren ulergaitzasunak ez zuen kezkatzen, *for the happy few*, gutxiengo zoriotsu horrentzat idazten zuela esaten zuen enpatxurik gabe.

Joko estetiko hori oso exigentea zen bere kasuan, perfekziozale amorratua baitzen. Bere poesietako irudien edertasunak eta erritmo imitaezinak liluratu ditu ordudanik bere ideiek gogait eragiten dieten hainbat eta hainbat irakurle. Poemaren musikalitatea, hitz bakoitzaren «barne-musika» eta bertsoan kokatzeko moduaren ondoriozko erritmoa guztiz garrantzitsua da Miranderen olerkietan, kanturako eginak dira horietako zenbait, erritmo bariatua eta errima aberatsak bilatzen zituen etengabe, errazkeriari uko eginez, epiteto hautatu eta irudien distira bilatuz, joko kontzeptualetan sinonimo eta homonimo hitz-jokoetan oinarrituz...

Beste zenbait adituk bezala, Sarrionandiak Miranderen obra poetikoa Edgar Alan Poe eta Charles Baudelaire-ren olerkigintzaren harian

kokatzen du. Mirande erromantizismoaren ideia irrazionalzaleen eta inkoszientearen aldeko joeren jarraitzaile da, baina paradoxan bada ere, Poe eta Baudelaire bezala, era berean Mirande erromantiko intelektualista izan zen, «poemagintzan inteligentzia, kalkulua eta metodoa lehen mailan jartzera zetorren» joeraren barruan.

19



Liburu honetan bildu du Patri Urkizuk Jon Mirandek Koldo Mitxelena, Txomin eta Robert Peillen, Jon Etxaide, Andima Ibiñagabeitia, Jokin Zaitegi eta beste zenbaitekin izaniko gutun trukea.

IPUINAK: MUNDU FANTASTIKOEN ITZALETAN

Jon Miranderen ipuinek, ugariak izan gabe, euskal literaturaren esparru murriztean ordurarte inork landu gabeko ipuin mota landu zuelako edo, guztizko eragina izan dute euskal narratiban, gaur egun izen handiko diren zenbait idazleren narrazioen bitartez.



Miranderen hamazortzi ipuinen artean, erdiak-edo itzulpenak dira: E. A. Poe (*Ixiltze, Amontillado Upela*), F. Kafka (*Legearen aitzinean*), H. H. Munro *Saki (Ipuin Kondatzailea, Leiho irekia)* bezalako ipuingileen itzulpenak, alegia. Berak sorturikoen

E. A. Poe eta F. Kafka idazleak izan ziren Miranderen ipuinen erreferentzia nagusi, eta haien zenbait obra itzuli ere egin zituen.

artean, *Behiak*, *Ametsa*, *Ur Bazterrean*, *Zazpi Gizeraile*, *Zinopa*, *Gaizkile baten azken orduak*, *Maitarien arnoa*, *Eresi Kantari*, *Gauaz Parke Batean*.

Miranderen ipuinen munduak, orokorrean, itzuli zituen autoreen giroa islatzen du, eta hauen artean adituek bereziki azpimarratu izan dute Edgar Alan Poe idazle amerikarrak Jon Miranderen mundu literarioan izandako eragina. Ipuingintzan bezain nabaria da olerkigintzan, Sarrionandiaren iritzi. Giza nortasunaren alderdi iluna, perbertsoa eta biolentoa agertzen dute ipuinek, ingeles artean ipuin «gotikoen» maisu izan zen XIX. mendeko E. A. Poeren ildotik. Sarritan, perbertsio edo gizakiaren ezaugarriak biolentorearen groteskotasuna eta absurdua da Miranderen ipuinen ezaugarri nabariena, eta itzultzeko hautatu zituen beste bi autoreengan (F. Kafka eta H. H. Munro) ere antzerako ezaugarriak nabari genitzake.

Aldizkarietan argitaratu zituen lehenik ipuinok. Egan argitaletxeak bildu zituen horietako asko *Idazlan Hautatuak* izeneko bilduman, baina artikuluekin tartekaturik. Azkenik, Patri Urkizuk 1984an *Gauaz parke batean* izenburupean Miranderen ipuinen

edizio berria argitaratu zuen, zenbait ipuini buruzko informazio interesgarria emateaz batera.



Idazlan hautatuak (1976)



Mirandek argitaraturiko ipuinen bi antologia, Txomin Peillenek Gero Taldearekin batera eginiko 1976koa eta Patri Urkizuren 1984koa.


22

Miranderen ipuinetan literatura fantastikorako joera nabarmendu zuen Urkizuk hitzaurrean, baina era berean ohararazi zuen Mirandek hizkuntza zanpatuetako, okzitanera eta irlandera bi idazleren lanak ere itzuli zituela, bereziki bi gai nagusi landu zituelarik, bi *leit motiv*, bat ia kontu guztietan: Izua. Bestea irlandera izulpenean soilik: Aberria.

Beraz, badirudi Poek eta bere frantses itzultzaile izan zen Baudelairek, bai bizitza moldez, bai beren idazlanez, liluratu egiten zutela, eta horrela, haien izuen eta Mirandek beraren zenbait gai pertsonalen bilbean ehundu zela haren ipuinen unibertso literarioa, iluna, makabroa, ikaragarria, baina baita iradokigarria, umoretsua, zorrotza eta ironikoa ere.

HAUR BESOETAKOA: IKARAGARRITASUNEAN MAMITURIKO EDERTASUNA

Aurreratu dugun moduan, 1959rako amaitua zuen *Haur Besoetakoa*, baina 1971 arte ez zen nobela labur hau argitaratu. Ezintasun horren arrazoia nobelaren argumentua zen eta defendatzen zituen jarrera moralak. Nobelaren argumentuak 30 urteko gizon baten eta 11 urteko bere haur besoetakoaren arteko maitasuna kontatzen du. Gizon horrek ez du gizarteak ezartzen dion debeku araua obeditu nahi, eta bere idealismoak horretatik ihes egitera darama. Neskatoarekiko dituen maitasun harremanek gizartearekin eta sendiarekin haustera bultzatuko dute eta azkenean, gizartearen iritzien presioak eta gizonarengan sortzen diren jelsia sentimenduek irtenbide dramatikora eramango du bikotea.



Nobelaren alderdi formalez hitz egiterakoan soiltasunaz eta bakuntasunaz hitz egiten dute kritikoek, obra oso klasiko baten aurrean gaude, antza, baina horrek ez dio edertasunik kentzen, eleberriaren oreka eta osotasun erabatekoa aurkitu duelako. Miranderen narrazio estiloa da halere, nobela honetan gehienik azpimarratu beharrekoa, prosaren erritmoaren dotoretasuna, pertsonaia nagusiaren egoera animikoen azalpen perfilatua, adjetibazioaren zehaztasuna... Estiloak liluratu eta gatibatu egiten du irakurlea, kultua, distiratsua eta ederra baita kontzesiorik gabe. «Hain aszetikoki markaturiko xede honi buruz, kontakizuna zehazki eramana dago erritmo arin eta bizkorrez eta idazkera dotore, zauli eta trinko baten bidez.»(Mikel Lasa 1987)



Haur Besoetakoa nobelaren bi edizio: G. Arestiren lehen edizioa (Lur, 1971) eta Hordagoren 1983koa.



MORALA ETA ASKATASUNA

Pedofiliaren gaiak literaturan zehar izaniko tratamendua aztertu dute *Haur Besoetakoaz* mintzatu direnek, Joseba Sarrionaindiak, Felipe Juaristik, Eduardo Gil Berak... Historian zehar, Dante Alighieri, Francesco Petrarca edo Lewis Carroll-ekin batera, Edgar Allan Poe aipatzen du Sarrionaindiak pedofiliaren tradizio literarioaren urrats garrantzitsutzat. Baina erreferente hauetan guztietan «neskato» edo ninfula horiek idazlearen biografiarekin erlazonaturik daude eta haien obretan pedofiliaren gaia erdi ezkutuan datza, hau da, bere erotismoa haur fantasiaz edo mistizismo sinbolistaz estalirik dago.

XX. mendearen bigarren zatian, aldiz, Vladimir Navokov-en *Lolita* nobelak gaia tratatuz eta deskribatuz ordura arteko literatur moralitatearekiko haustura burutuko du. 1955ean argitaratu zuen *Lolita* ez da aurreko ninfulak bezalakoa, bere benetako izaera demoniakoa erakusten duen neskatxa da. Hurbiltasun kronologikoagatik, Navokov-en *Lolita* (1955) sarritan aipatu izan da *Haur Besoetakoa* (1959) liburuaren iturritzat, baina ez dute zerikusi handirik bi narrazioek. Ezberdintasunak nabariak dira, zeren lehenengoan protagonista haurraren



Haur Besoetakoa irakurri ondoren Kintanak idatzirikoari erantzunez Mirandek 1972an eginiko gutunean bizi zuen isolamendua eta etsipena nabaritzen dira.

jostailu bihurtzen da eta
Miranderenean aldiz, gizona da akzio
konplexuago baten eramailea,
neskatxaren borondate pasiboa
bereganatuz, haren hezkuntza eta
bizitzaren norabidea gidatzen
dituelarik.

Bestalde, Miranderengan maitasun
debekatuen gaia ez zen inolaz ere
berria, poesiei buruz hitz egitean
aurreratu den bezala. Amodio
erlazioen naturaltasuna errebindikatu
zuen, bereziki amodio anormal edo
debekatuena.

Oinarrian Mirandek Theresa eta
haren aitajaunaren arteko amodioaren
bilakaeraren historia kontatu zuen,
pasiozko klimax gorena, bide batez
karnala eta mistikoa dena, lortzen
duen arte. Liburuaren gai nabaria
pedofilia baita. Horregatik hitz egin
behar da lehenik *Haur Besoetakoari*
darion erotismoaz eta gizarteari nahiz
gizartearen hipokresiari egiten zaion
salaketaz. Izan ere, protagonista

gizarte mailan arbuiatua da, baina ez
benetako morala dela kausa. Morala
itxurakeria, axaleko aitzakia besterik
ez da, burges txikien bizitza
onartarazteko. Beraz, muinean dagoen
arazoa horixe da, gizarteak ezarritako
moralaren lakioa. «Gizarteko
eginbideak» formularen barruan
biltzen du norbanakoari eskatzen
zaion nortasunaren sakrifizioaren
legea. Pedofiliak gizartetik at
aterarazten du protagonista, besteen
gisakoa ez delako. Beraz, *Haur
Besoetakoan* moralaren arazoa sexu
arloko «desbideraketan arloan»
bakarrik kokatu ohi dela salatzen du,
gainerakoan etikaren aurkako beste
hainbat eraso isilean uzten direlarik.

Moral hipokrita horren aurkako
askatasunaren egarri hori ongi sumatu
zuen liburua lehenik argitaratu zion
Gabriel Arestik, eta hari buruzko iritzia
ematerakoan esan zuen, bere ustez,
libertateari eskainiriko kanta bat zela:
«Hitz bitan esan beharko bagenu *Haur
Besoetako* zer iruditu zaigun, honela
esango genuke dela:
ikaragarritasunean mamitutako
edertasun imposible bat.» (*Anaitasuna*,
Bilbo, 1970, 15, 195 zk., 10 or.)





Hans Baldung Grieg-en «Emakumearen hiru adinak» (1510) grabatuaz baliatu da Aurelia Arkotxa *Haur Besoetakoan* emakumearen adinak simbolizatzen duen denboraren eraginpetik ihesi egin nahia irudikatzeko.

Tin-n'Og «Agindu Lur» hura, heriotzarik, hobenik eta hutsik gabean. Han edertasunak beti irauten du zimeldu gabe eta Theresaren haurtasuna ez da inoiz galduko, ez da beteko, beraz, Baudelaireren epaia «*et les fruits passeront la promesse des fleurs*».

Hemen ordea, dena galkor, akasdu eta itsusi den mundu honetan arimak bere sorterriaren nostalgia du, hartara itzultzeko irrika bizia; horregatik, heriotza ez da denaren amaiera, arimarentzako askatasunaren hasiera baizik, orduan hasiko da bere benetako zoriona. Ildo beretik, Eduardo Gil Berak ere, Miranderen nobelaren itzulpenari, *La ahijada*-ri, eginiko sarreran iradokitzen du



Eduardo Gil Berak eginiko *La ahijada* gaztelararako itzulpena (Pamiela, 1991)

arimaren eta Gazteen Lurraren sinbolizazioan denboraren norabidearen aintzinako eta funtsezko gizakiaren galderaren planteamendua dagoela. Miranderen *Tin-n'Og* «Gazteen Lurra», etorkizun desiratua den hein berean baita desira horren jaioterria eta herrimin horren iturburua.

Miranderena ez da erromantikoen nostalgia, Mirandek ez du Erdi Aro edo garai handietako Egipto iraganaren herriminik. Arimaren jatorri eta helburu zen Gazteen Lur haren herrimina baizik; halere, mito zeltiko horri ez zion inoiz gehiegizko zertzeladarik eman ez arlo estetikoan ez politikoan. Mundu mitiko horietan edo Gazteen Lurrean, poeta bezala ez ezik, gizaki bezala ere sinesten ote zuen ez dakigu, baina beretzat egia seguru bakarra «arimaren bizitza zela» behin eta berriz esan izan zuen azkenera arte. Hona hemen azken idazkietako batean bretoieraz idatziriko *Hor fez* (Nire fedea): «Ariman sinesten dut, jainkoetan sinetsi beharko ote dut? Nire ustez, auzi oso ezberdina da. Niretzat nire arima aski zait. Halere, bere batasunaren nekeak astun egiten dionean, Jainkoak ohoratzera zirikatua da, nostalgia baten uztak edo klaneko giza handien arimen oihartzuna, gure izatearen beste planetan bizitzen direnak balira bezala.» (352 orr.)

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Koldo Mitxelena Kulturunea.*
- *Eduardo Gil Bera.*
- *Patri Urkizu.*
- *Eugenio Ibarzabal.*
- *Xabier Kintana.*
- *Aurelia Arkotxa.*
- *Txomin Peillen.*
- *Joseba Olalde argazkilaria.*

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	1.a, 2000ko abendua
Ale-kopurua:	2.000
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Maketazioa:	José Luis Casado González
Fotokonposizioa:	Rali, S. A. Particular de Costa, 8-10 - 48010 Bilbao (Bizkaia)
Inprimaketa:	Estudios Gráficos Zure, S. A. Carretera Lutxana-Asua, 24 - 48950 Erandio Goikoa (Bizkaia)
ISBN:	84-457-1621-2 (Obra osoa) 84-457-1624-7
L.G.:	BI-83-01

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística